



### A.6.1. ALDATZE

#### A.6.1. ALDATZE

Azalera: 54.679 m<sup>2</sup>

#### I. Ordenazio-irizpideak eta Helburuak

Eremu honek, hezkuntzako ekipamenduei egokitutako zona hartzen du eta bertan kokatzen dira Itzio Bigarren Hezkuntza Institutua, Alfa Ikastetxea eta Probidentzia Andre Mariaren Ikastetxea.

Auzorako proposamen orokorra, funtsean egungo eraikuntzak finkatzen dituena, ekintza hauetan oinarritzen da:

- \* Hiri parke bat (Sakun) sortzea Institutuaren eta Arrateko errepidearen artean.
- \* Auzoaren erdigune alderako irteera hobetzea, Jardinetza Kalea (12 eta 14 zenbakien artean) Ibergain Kalearekin lotzen duen zatiaren bitartez.
- \* Hiri egitura osatuko duen bizitegien esku-hartze bat gauzatzea Jardinetza Kaleko 27 eta 31 zenbakien arteko atzeko aldean. Proposamen hau A.I. 129 01 Jardinetza Jarduketa Integratuaren bidez garatuko da; horren zehaztapenak dagokion hirigintza fitxan jasotzen dira.

#### II. Hirigintza-Erregimen Orokorra

Kalifikazio Globala:

O-CG-01 "Kalifikazio Globala", Ordenazioko (I. Liburukia) V. Planoaren arabera.

Eraikuntzaren Baldintza Partikularrak:

Egungo eraikinak, ordeztzerakoan, O-AL-AO-1 eta O-AL-AO-2B "Lerrokadurak eta Sestrak. Ordenantza Eremuak", XII. planoetan zehazturiko lerrokadurei eta sestrei egokitu beharko dira, eta 2/2006 ELH Legearen xedapenak kontuan hartuta Hirigintza Arau Orokorrei egokitu.

Erabilera Baldintza Partikularrak:

Eremuaren erabilera nagusia, Ekipamendu erabilera da: Hirigintza Arauen agirian 8.3.04. Artikulua.- Ekipamendu erabilera (3. erabilera).

#### III. Ordenazio Xehatua

Eremu honetan xehatutako eremu-banaketa baldintzak, O-CP-01 "Kalifikazio Xehatua", Ordenazioko (I. Liburukia) VII. Planoan ezarritakoari egokitu beharko dira.